

## UPV/EHUko ARTE EDERREN FAKULTATEKO IKASLEAK ORDUTEGIZ/TALDEZ ALDATZEKO ESKARIEI BURUZKO ARAUTEGIA

Arautegi honen helburua da ezartzea prozedura bat, ebazteko ikasleek ordutegiz/taldez aldatzeko egin ditzaketen eskariak. UPV/EHUko Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegiak 25. artikuluko 1. puntuak dioenez, matrikulatutako ikasleak banatuko dira nahitaezko irakasgaietako taldeetan Ikastegiko Batzarrak onartuko duen irizpideari jarraituta. Arte Ederren Fakultateak erabaki zuen 2024ko maiatzaren 21eko bileran ikasleak ausaz banatuko direla.

Behin matrikula eginda, aipatutako artikuluko 3. puntuak honako hau dio nahitaezko irakasgaietako taldeak direla eta:

*Maila eta hizkuntza batean matrikulatu ondoren, ikasleek taldez aldatzeko eskatu ahal izango dute irakasgai solteetan, hizkuntzagatik. Eskabideok ikastegiko zuzendaria edo dekanok ebatziko ditu, eskura diren baliabideak oinarri hartuta.*

Bat etorrita aipatutako arautegiarekin eta unibertsitateko ikasleei buruz indarrean dauden gainerako arauekin, Arte Ederren Fakultateak, kontuan hartuta egon daitezkeen egoerak eta kasuak, arautegi bat prestatu du taldez aldatzeko eskariak ebazteko. Arautegi horretan jasotzen dira egon daitezkeen kasuak eta argi utzi nahi du zein egoeratan onartuko diren ikastegiko ikasleek eskatuko dituzten aldaketak.

Ikastegiko zuzendaritza taldeak talde eta irakasgaien arabera antolatu eta kudeatu behar du matrikula, betiere gairak gabe talde bakoitzeko plaza kopurua eta kontuan izanda erabil ditzakeen espazioak eta eskura dituen baliabideak. Hortaz, matrikula egiteko epea behin amaituta, ondoren aipatzen diren arauak jarraituta antolatu eta kudeatuko da taldez/hizkuntzaz aldatzeko eskarien prozesua.

### TALDEZ/HIZKUNTZAZ ALDATZEKO ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA:

Matrikula behin eginda, ikasleek **10 egun balioduneko epea** izango dute aipatutako eskaria aurkezteko. Epe hori hasiko da zenbatzen matrikula egiteko esleitutako egunetik aurrera. Epe hori amaituta, ez da onartuko taldez aldatzeko eskaririk, nahiz eta, salbuespen moduan eta arrazoi justifikatu eta egiaztatuz egonez gero, ikasturtean zehar onartuko diren eskariak.

### ESKA DAITEZKEEN ALDAKETAK



### Taldez aldatzea

Ikasleek matrikulatutako irakasgai bat edo batzuk aldatzeko eskaria egin ahal izango dute, hala nahitaezko irakasgaiak nola hautazkoak. Hautazko irakasgaietarako eskariak ez dira onartuko kasuan kasuko irakasgaia itxi bada eta plaza guztiak beteta badaude. Nahitaezko irakasgaien kasuan, eta kontuan izanda irakaskuntza modua eta eskolak emateko espazioa, matrikulako plaza guztiak beteta badaude, ez da onartuko eskaririk.

### Hizkuntzaz aldatzea

Ikasleak irakasgaietako hizkuntza aldatzeko eskubidea du.

### Bi ikasleren arteko trukea

Trukea da gradu berean matrikulatutako bi ikasle taldez aldatzea biek aukeratutako irakasgai batzuetan (ikasleetako bat bestearen taldera aldatzea, eta alderantziz). Eska daiteke maila bereko nahitaezko zein hautazko irakasgaietarako.

## ESKARIAK AURKEZTEKO PROZESUA:

### Eskaria ikastegiko idazkaritzan aurkeztu ahal izango da, edo posta elektronikoz bidali, horretarako egongo den eskari orria erabilia.

- Eskaria orrian honako hauek adierazi beharko dira:
  - o Eskatzailearen datuak
  - o Eskatzen den aldaketa mota:
    - Taldez aldatzea
    - Hizkuntzaz aldatzea
    - Bi ikasleren arteko trukea
  - o Arrazoa:
  - o Beharrezkotzat jotzen diren agiriak aurkeztuko dira

### Taldez aldatzea

Ikasleek taldez aldatzeko eskubidea izango dute kasu hauetan:

- 5. eta 6. deialdietan dauden ikasleak (lehentasun handia).
- Taldez aldatzea **ordutegiek talka** egiteagatik. Ikasleek taldez aldatzeko eskaria egin ahal izango dute egiaztatzen badute matrikulatuta dauden mailetako irakasgaien ordutegiek talka egiten dutela. Ikasleek zehaztu beharko dute zein irakasgaik egiten duten talka. Taldez aldatzea beti eskatu behar da beheko mailetan gainditu ez diren irakasgaietarako.



- Maila handiko kirolariak, teknikariak eta epaileak edo **errendimendu handiko kirolariak** (aurkeztu behar da estatuko edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria, edo UPV/EHUko Kirol Zerbitzuarena).
- **Genero indarkeriaren biktimak** (aurkeztu behar da babes aginduaren kopia edo genero indarkeriaren biktima dela adieraziz Fiskaltzak egindako txostenaren kopia).
- **Mendeko senide baten zaintzailea** (aurkeztu behar da aldundiak edo erakunde eskudunak emandako ziurtagiria).
- **Lan kontratua** izanik asteen **20 ordu** baino gehiagoko lanaldia duten ikasleak (aurkeztu behar da lan bizitzaren agiria eta egin beharreko lanaldia zehazten duen kontratuaren kopia).
- %33ko **desgaitasuna** edo handiagoa duten ikasleak. Aurkeztu behar da aldundiaren edo erakunde eskudun baten ziurtagiriaren kopia, desgaitasuna zenbatekoa den egiaztatzen duena.

Aipatutako arrazoiren batengatik taldez aldatzeko eskaria egin ahal izango da dena delako arrazoa gertatzen den unean.

## **ESKARIAK EBAZTEKO FASEA**

Ikastegiko dekanotza taldeak egindako eskariak aztertuko ditu, eta eskariok ebazteko proposamena egingo du.

Eskariak ebazteko irizpideak aplikatuko dira kontuan hartuta hutsik dauden plazen kopurua. Hortaz, gerta daiteke ikasleren bati ez onartzea taldez aldatzeko eskaria, arautegian jasotako arrazoiak bete arren. Halakoetan, eskaria onartzen ez denean, ikasleak baliogabetu ahal izango du joan ezin den irakasgaietako matrikula.

### **Ebazpena jakinaraztea**

Eskarien ebazpena fakultatearen webgunean emango da argitara. Urtean zehar aurkeztuko diren eskarien kasuan, hau da, matrikulako epetik kanpo, interesdunari berari jakinaraziko zaio ebazpena.

### **Uko egiteko fasea**

Ebazpena behin argitaratuta, ikasleek uko egiteko eskaria ahal izango dute, ebazpenaren berri izan eta 5 egun balioduneko epearen barruan.

Arautegi hau 2024ko maiatzaren 21ean onartu du Ikastegiko Batzarrak.